


EAEko gazte gehienen lehen hizkuntza gaztelania da

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 10 gaztetik 7k diote euren haurtzaroko lehen hizkuntza —3 urte bete arte— gaztelania bakarrik izan zela. Beste %21entzat euskara bakarrik izan zen.

Otsailaren 21a Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna dela eta, euskararen erabilera eta jarrerari buruzko datu batzuk aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#), 15 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkienak. Datuok 2010eko abenduan bildu zituen Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak* azterlanean, baina EAEko biztanleria orokorrarenak, eta gazteenak berariaz eskatuta eskuratu ahal izan ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

Beraz, Gazteen Euskal Behatokiaren [adierazle estatistiken sistemak](#) eskuratu dituen datuen arabera, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %70ren lehen hizkuntza gaztelania izan zen; %21ena euskara; %7rentzat bi hizkuntzak izan ziren lehen hizkuntza; eta %2rentzat, euskara edo gaztelania ez beste hizkuntza bat.




Ulergarria da, kasuen %72tan gurasoen hizkuntza nagusia gaztelania da eta.

Nolanahi ere, euskara lehen hizkuntza izan zuten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak gora egin du 2006an %17,5eko mailan zegoenetik. Lehen hizkuntza gisa bai euskara, bai gaztelania izan zutenen ehunekoa ere apur bat igo da (%6,4tik %7ra), eta, ostera, %76tik %70era jaitsi gaztelania soilik izan zutenena. 2006ko datuak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren [IV. Mapa Soziolinguistikokoak](#) dira.

Gazte gehienek euskaraz dakitela diote: %71k ongi edo nahiko ongi ulertzen dutela baieztatzen dute; %69k euskaraz idatzitako testuak ongi edo nahiko ongi irakurtzeko gai direla esaten dute; %63k euskaraz ondo edo nahiko ondo idatz dezaketela; eta, azkenik,

%59ren hitzetan, euskaraz ongi edo nahiko ongi mintzatzen dira. Edonola ere, gazteen %62k hizkuntza-gaitasun handiagoa dute (erraztasun handiagoz hitz egiten dute) gaztelaniaz euskaraz baino.



Gainera, gazteen %38k diote euskara ikasi dutela eskolaren esparrutik kanpo, eta %87k baino gehiagok uste dute Euskadin, egun, euskaraz mintzatzen jakiteak aukera gehiago ematen dituela.

Euskararen erabilerari dagokionez, gazteen %12ren arabera, familiartean beti euskaraz aritzen dira. Ehuneko hori %22raino igotzen da talde horri gehitzen badizkiogu familian euskara gaztelania baino gehiago darabiltela diotenak, edo bi hizkuntzak maila berean. Euskara lagunartean erabiltzen dutenen ehunekoa (beti, gaztelania beste edo gehiago) zertxobait handiagoa da, %28koa, eta ikasketetan edo lantokian euskaraz egiten dutenena %40raino iristen da.

Bestalde, **gazteak euskararen sustapenaren alde daude**, argiro: %86ren ustez, hizkuntza guztiek garrantzi bera dute gizadiarentzat, eta neurriak hartu behar dira biziraun dezaten, hitzun-kopurua gorabehera. Horrela, bada, %61ek beharrezkoa deritzote euskara sustatzeko diru publikoa emateari, eta %71k haur guztiek euskaraz ikasteari. %83ren iritziz, kontsumitzaile eta erabiltzaileek edozein denda, enpresa eta administraziotan euskarazko nahiz gaztelaniazko arreta jasotzeko eskubidea dute beti. Era berean, %74k uste dute ezinbestekoa dela jendaurrean lan egiten duten funtzionarioak euskaraz mintzatzea, eta, are gehiago, %71k EAEn lan egiten duten funtzionarioek euskara ikasi beharko luketela.

Ez da harritzekoa, gazteen %56rentzat euskara euskaldunen berezko hizkuntza da eta.

Datu hauek eta beste batzuk aztertu nahi izanez gero, erantsitako [pdf](#)-a kontsulta daiteke.